

**NAFARROAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA'89**

**Apirilak
2 LANDIBARRE
9 LEITZA
16 SUNBILLA
23 BAIGORRI**

Nafarroako Bertsolari Txapelketa'89

Egilea: Nafarroako Berisolarien Lagunak
Koordinatzaile: Lorentxo Aburuza
Azala: K. Txokarro
Argazkilaria: Jose Antonio Gezolaga "Zaldubi"
Fotokonposaketa: Fonasa
Inprimatzailea: Line Grafic
Babeslea: Nafar Gobemuko Kultura eta hezkuntza sails
D. L. NA 1.350 - 1989

AURKIBIDEA

SAIOAK:

Orrialdea

Kanporaketak

Landibarre	13
Leitza	31
Sunbilla.....	49

FINALA

Baigorri.....	65
---------------	----

HITZAURREA

Lehengo urteko txapelketako liburuxkak izan zuen arrakasta kontuan izanik zilegi deritzogu aurtengoaren berri plazaratzea.

Jakin badakigu txapelketa ez dela bertsolari askoren gustokoa izaten eta bertso egokiak sortzeko gune apraposa ere ez dela, baina herri hontan txapelketa aintzinako ohitura denez berarekin topo egiten dugu. Nafar bertsolariek ia urtero zita jakin bat bezala daukate eta Nafarroako herri txiki batean ez bada bestean ospatzen da lehia hori. Bertso saio batzuetan euria bestetan elurra laguntzaile dugula eta gehienetan zihurki hotzak ahotsak etenaraziz bertsoak leku hartzen du.

Bertsozale fina beti aulki izoztuan eserita edo zutik han izaten da eta hori da bertsolariak eskertzen duena eta bertsolaritzak beharrezko duena iraun dezan.

Aurtengo txapelketak txapelaz gain bazuen beste jakin mina, zeren Euskalerriko txapelketarako zazpi bertsolari aukeratu behar ziren. Beraz txapelketako puntuaketan 7 onenak izendatuak gelditzen dira 89ko larrazkenean beste herrialdetako lagunekin lehia gogorrago batean aritzeko. Hau delata, nahiz Nafarroako Txapelketa deitu, Nafarroa eta Ifarraldeko bertsolariek partehartu dute guztira 26ra iristeraino.

Bertsolari batzuk betiko estiloan aritu dira baina puntuaketa begiratzuz sorpresa ederrik ere beti izaten da. Hemen zuen gustoko izan daitezkeen bertso batzuk aukeratu ditugu eta zuei dagokizue iritzia ematea. Guk geroak bertsolaritza ezagutzea eta dastatzea nahi dugunez jasotakoaren berri ematen dugu.

Eta bukatu baino lehen gure eskerrik beroena liburuxka hau argitaratzeko jaso dugun diru laguntzagatik Nafar Gobenoiari eta Lankide Aurrezki kutxari.

AZALPENAK

HELBURUA

Nafarroako Bertsolarien Lagunak elkarteak beste eginkizunen artean urteroko txapelketa herrialde hontako bertso giroa suspertzera bideratzen du.

ANTOLAKETA

Txapelketako antolaketa lanetan Nafarroako Bertsolarien Lagunak elkarrekin arduratzen da. Baina saioak ospatzen diren herrietan talde laguntzaile batzuk izaten ditugu eta hauek gabe hutsa ginake.

Beraz gure eskerrik beroena saioak eratzen hainbat lan ixil egin duten talde laguntzaile hoientzat.

DIRU LAGUNTZAK

Hemen zehatz mehatz ez ditugu agertzen, baina aurtengo berri bertsozaleak jakin dezan honela izan dira:

- Nafar Gobernoak	2.000.000
- Lankide Aurrezki Kutxak	130.000
- Euskaltzaindiak	50.000
- Nafarroako kutxak	100.000
- Kutxa Munizipalak	30.000
GUZTIRA.....	2.310.000 pzta.

Sarreretan jasotzen den dirua, saioa egiten den herri bakoitzean trikitixa, bertsolarien bazkaria, aretoa...ea. ordaintzeko izaten da.

Ikus dezakezuenenez Nafar Gobernoa dugu laguntzaile nagusia, zeren berekin urte guztirako komenio bat sinatua bait dugu. Nafarroako Bertsolarien Lagunak Elkarrekin laguntza guzti hontaz baliaturik txapelketa eta udako 30 saio antolatzen ditu Nafarroako herri txildetan.

PARTEHARTZAILEAK

Txapelketan parte hartzeko bertsolariei hiru baldintza hauek betetzea eskatzen zaie:

- 1) 18 urtetik gorakoa izatea.
- 2) Nafarroa edo Iparraldean jaio edo bizitzea.
- 3) Urtarrilaren azken eguna baino lehen izena ematea.

Aurten izena eman dutenak hauek izan dira:

Hegoaldetik: Bautista Madariaga (Arantza)
Salbador Madariaga (Arantza)
Luis Olaetxea (Lesaka)
Joseito Yantzi (Etxalar)
Manolo Arozena (Lesaka)
Txomin Amorena (Zugarramurdi)
Bittor Elizagoien (Arraioz)
J.M. Fagoaga (Ituren)
Eusebio Fagoaga (Ituren)
Angel Martikorena (Igoa)
Bautista Perurena (Leitza)
Lorentxo Aburuza (Iruñea)
Patxi Zeberio (Iruñea)
J.M. Argiñarena (Errazkin)
J.F. Argiñarena (Errazkin)
Antonio Olano (Arano)
Moisés Jaso (Gaintza)

Iparraldetik: Txornin Ezponda (Jatsu)
Ernest Alkat (Iholdi)
J.P. Mendiburu (Heleta)
Mixel Aire (Xalbador II) (Urepel)
J.L. Harinondoky "Laka" (Baigorri)
Ferrnín Mihura (Sara)
Ignazio Olaziregi (Sara)
"Errexil" (Urruña)
Jesus Arzallus (Hendaia)

EPAIMAHAIA

Azken urtetan bezala 6 gizonak osatzen dute epaimahaia.
Hauetako hiru Iparraldekoak dira:

- Mixel Itzaina
- Emile Larre
- J.P. Etxegoin

Beste hiru hegoaldekoak izendaturik dira:

- Joxe Urroz
- Mikel Bujanda
- Aingeru Epalza

Hauek puntuaketa bertsoz bertso baloratzen dute eta nahiz agerian ez eman, saioa amaitzean bertsolari edo bertsozaleak ikus dezakete.

GAIJARTZAILEAK

Kontuan izanik ifar eta hegoaldeko herrietan ospatzen direla bertso saioak, gaijartzaileak ere bi aldetakoak izaten dira entzuleak ulertzeko erreztasun gehiago izan dezan.

Finaleko saioan bi gaijartzaile izan ziren: Daniel Landart eta Mikel Taberna.

LIBURUA EGITEKO ERABILITAKO ERIZPIDEAK

Lan askoren eta laguntza murriztaren jokuak mugaturik, borondate oneko bi bertsolari Pablo Jose Aristorena eta Manu Gomez gazte behartu ditu traskribapen lan guztia egitera.

Hauek batzutan grabaketaren kalitatea txarra zelako eta bestetan denbora eskasia zelako ahal dutena egin dute.

Baina erran behar dugu liburua inprimatu aurretik bertsolari gehienek aukera izan dutela beren lana ikusteko eta traskribapeneko zuzenketa eta beste ikuturen bat egiteko.

Azken epaia hain justua izanik, epaimahaia bera epaitzeko tentazio duenak kontutan har beza eskuarteko liburua ez duela zilegia.

LANDIBARREKO KANPORAKETA

1989.ko apirilak 2a

Leitza eta Sunbilako kanporaketetan bezala Landibarren bertsolariek egin beharreko lana honoko hau izan zen:

- Agurra
- Binaka zortziko haundian gaia emanda hiru bertso
- Binaka zortziko txildan gaia emanda hiru bertso
- Puntuari erantzun
- Lau oinak emanda bertso bat
- Bukaera emanda
- Kartzelako gaia hire bertso osatzeko

Zozketan tokatutako zenbakien arabera partaideak hauek izan genituen:

1. Laka
 2. Xalbador
 3. Ezponda
 4. Mendiburu
 5. Arzallus
 6. Olaziregi
 7. Alkat
 8. Mihura
 9. Errexil
- Gai jartzaile: Irieder.

Irieder: Zuk Mendiburu lapurretan ibiliz eskuratzen duzu eguneroko ogia. Ezponda aldiz eskean ibiltzen zara. Eta zuk gaur Mendiburu eskaleari duen diru guztia ebatsi nahi diozu labana zintzurrean ezarriz. Hiruna bertso zortziko nagusian, Mendiburu hasita.

Mendiburu: Ezin biziak ezarria nau
munduan trantzez beterik
eta ez dut nik gaur egin nahi
zuk bezalako eskerik
bina dirua kenduko dautzut
ez da hortako nekerik
ganibeta dut eskuan eta
ez dut zeintzale besterik.

Ezponda: Labanarekin meatxuka zait
lapur gaizto hau hasia
hunek ez dakit zer dagon egun
limosna baten grazia
ez dea hobe pobre izan ta
duenari eskatzia
laban txar hori bota zazu ta
zuk hartu kontzientzia.

Mendiburu: Esketik bizi zira laguna
edo etsai itsusia
kontzientzia nik gaur biltzea
hor ateratu duzia
labana hori nere eskutan
ez duzia ikusia
kenduko dautzut bizia edo
daukazun diru guzia.

Ezponda: Nahiko polizia piztu zen
lapurra hoiak diralako
ni eske lanean ari naiz ta
bizimoduz ez naiz flako
beldurti zaude jadanik eta
ez nauzu zuk egun hilko
zure jestuak lagun ez dira
ez izanen luzaroko.

Mendiburu: Lapurra naiz ta tristeki bizi
neurez oso dohakabe
ta zu esketik egun hor zaude
nahi hainbat dirun jabe
emazkidazu diru guztiak
bizitzea galdu gabe
bizia beden salbatzea zuk
anitez bait duzu hobe.

Ezponda: Lapurketan zu ari zira to
gaur ez zira ontsa bezt
nik nahiago dut eskale izan
to bizi ahal bezain ezti
gaizki eginak izaten bait du
ondorio txarra beti
zure eskuak ez zaizkizula
nere odolean busti.

Irieder. Arzallus eta Olaziregi. Esposatzeko asmotan zabiltzate baina diru arazoak dituzute. Zu Arzallus mutikoa zara,
diru pixka bat egin arte ez duzu esposatu nahi. Zu Olaziregi neska zera eta zuk ordea segiran nahi zenduke
esposatu. Hiruna bertso, Arzallus hasita.

Arzallus: Eskutik elkarri heldurikan
irtetzen gera kalera
neska lagunak egina dit gaur
esposatzeko galdera
esposatzeko zer ajola du
urte batzu gora behera
sosikan gabe ezkondu eta
hotzak hil beharrez gera.

Olaziregi: Ezkondutzeko mundu honetan
guk elkar degu ikusi
to kuple batek ondo izatea
bizian dena merezi
guk behar degu maitetasunez
bizi munduan ederki
orain baina itxura hobean
maitea nahi zaitut ikusi.

Arzallus: Esposatzeko maitasuna da
lendabiziko baldintza
bizi osoan maiteko zaitut
nik emana dizut hitza
baina zergatik esposatu nahiz
hain presatua zabiltza
lehendabiziko behar ditugu
ohe ta etxe bizitza.

Olaziregi: Batek neskato izango da ta

bestea berriz nagusi
zer egin bide daukagun
nahi dizut adierazi
fruitu berriak Euskadira
ekartzen behar degu hasi
eta euskaraz azkar mintzako
heldu denai erakutsi.

Arzallus: Patxara pixkat eska zaiozu
otoi zure bihotzari
nere maitasuna izango da
betiko zuretzat sari
hain presatua bada galde bat
horra nere neskatxari
kredito on bat eska zaiozu
aitari eta amari.

Olaziregi: Aita ta amaren galdera
andreak nahi du erantzun
senar-emazte nola bihurtu
geraden hemen gu egun
izan gaitezen sakramentu batez
bizi guztirako lagun
baina guztiangatik Euskadin
izan gaitezen euskaldun.

Irieder: Alkat, Mihura eta Errexil. Hiru anai zarete eta gurasoek utzitako baserrian zuk, Alkat baratzarekin segi nahi zenuke. Zuk, Mihura lurra saldu nahi zenuke diru pixka bat eskuratzeko eta zuk berriz Errexil ostatu bat jarri nahi duzu etxekoek lan eginez bizi ahal izateko. Alkat hasita hiruna bertso zortziko nagusian.

Alkat: Gure aita'mek utzi lur hunek
hartze ditu ohoreak
hiru anaiak haserre gaude
desberdinez umoreak
alegrantzia nik maite dut ta
maite ditut koloreak
gure aita'mek utzi lur hortan
emango ditut loreak

Mihura: Bertze idei bat etorria zait
neri bai oraingo hontan
ez du balio beti aitzea
baratze hortako kantan
saldu dezagun lur puska hori
orain saltzen bait da plantan
hain ongi gu hor biziko gera
hori emanta errentan.

Errexil: Hor bi anaiak baditudala
gaur ari eskandaletan
nik ere idei bat gaurkoan ba
badaukat bai buru huntan
jantokino bat egin dezagun
lur honetxan erdietan
eta hirurak gero sozio
ariko gera jostetan.

Alkat: Ene anaiak entzun ondoan

bihotza jartzen zaut sutan
anaiak ere izan gaitezken
gogoetan naiz batzutan
badakizue zoin jende gutti
dagoen gaur ostatutan
eta aita'men maitasun hura
ezin ordaindu dirutan.

Mihura: Aldiz diruak neri ekartzen
deraut beti omorea
mundu hunetan zer duk bada hor
gehiagoko balorea?
behin eskurat ongi ikusiz
diruaren kolorea
ez al dugu ba Alkat errexxi
erosiko guk lorea.

Errexil: Batek lorea besteak dirua
a zer dute ba gogoan!
nik holako gauzik ez dut nahi
bada gaurko hiruetan
elgar arituz jantoki hori
molda dezagun jostetan
gero familia lana eginez
biziko ge lorietan.

Alkat: Holakoekin zer bait egiten
ez dago gauza aisea
nola ditaizke anai bihurtu
holako jende klasea?
diruaz eta ostatuetaz
izango daike asea
erran nezake gora etxea,
gora gure baratzea!

Mihura: Hauen ondotik ez nuke nahi
batere egin ihesi
baina gaur anai hauekin behar
dugu nahiko pazientzi
ostatu batek gaurkoan ez du
ez ematen irabazi
hobe dugula ainitzez ere
lanik egin gabe bizi.

Errexil: Lore hoietan ari nahi duen
gizon honeri diot nik
gurasoak hor zien denboran
hor egiten zen lan onik
hire gain hori hartutzen baduk
izanen duk historiorik
ez lore, ez gizon ez duk izain
ta ez bertzientzat dirurik.

Irieder: Ezponda eta Mihura. Gaur arratsalde Ezponda saski bete ziza edo onddo bildu duzu. Mihura gonbidatu duzu horiek jatera baina zu, Mihura ez zara lagunak bildu dituen onddoez fiatzen. Ezponda hasita hiruna bertso zortziko txikian.

Ezponda: Onddoaren biltzeko
nere esperantzak
saskiaren betetzen
lagundu naik txantzak
Mihura hik onddoak
gaur lasaiki jan zak
pixka bat bete diton
egun hire galtzak.

Mihura: Onddoak jateko dut
beti begikoa
baina gaurkoan hauk hemen
ez tut gustokoak
atzematen bait ditut
itxur gutikuak
hoiek eman dautate
laister behitikuak.

Ezponda: Kakerian beldurra
du nere iduriko
hortako mahainean
ez dela jarriko
onddoek ez diote
kalteik ekarriko
xuti kakeriak ez dio
aztalik bustiko.

Mihura: Orainokoz ni jaten
ez bait naiz hasia
horrek eman bait deraut
geroko trantzia
kolorez bildu tutzu
hambat itxusiak
zuk bildu hauek dira
bertzeek utziak.

Ezponda: Oinarte ainitz dira
zer nahi erraiten
hiri konfiantzarik
ez nian emaiten
onddo hauek ez ditek
gaizkirik izaiten
lehenbizi nihaur hemen
hasiko nauk jaten.

Mihura: Beraz jaten hasten da
hor pure mutila
bera hortxe geroko
gaizkian dedila
ni berriz gaur ez nau ez
sakatuko pila
nihaurrek nahiago dut
joan onddo bila.

Irieder: Arzallus, zortziko ttipia osatzeko hauek dituzu lau oinak: **Zora, Gora, Denbora eta Ondora.**

Arzallus: Abertzale indarrez
Paris zaigu zora
hala ere ez datoz

ez gure ondora
gero zer pasako den
testigu denbora
nahiz traba asko jarri
beti goaz gora.

Irieder. Laka, zuretzat lau oinak hauek dira: Bera, Atera, Kaltera, Batera.

Laka: Hemendik bertsu onak
nahi nuzke atera
hori ez bait litaike
nehoren kaltera
hortako ez otoi utz
hemen Laka bera
zerbait egin dezaket
zuekin batera.

Irieder: Nahi duzun neurri eta doinuan hiru bertso bota ditzazun, gartzelako gaia hau izanen duzu Xalbador Zerk beldurtzen zaitu gehien?

Xalbador: Bildurra sartzen dautaten gauzak
horietan aunitz baita
gehinik sartzen dautaten hiru
gauza ditzat orain aipa
ni naiz alabak bihotz guztiaz
maitatzen ditutan aita
zenbait aldiz beldur naiz ez nezaten
gisa berean maita.

Ez dira alta ene alabak
hain makurki duan xendran
bainan hala re ene beldurra
nahi dut gaur deneri erran
orain hori re hain zorigaitzez
jarria baitzauku modan
Jainkoa begira baina beldur naiz
noizbait usa ditene drogan

Ez uste izan ene alabak
dauzkadanik nik hair apal
baina beldur hau izaitetik ez
naiz eskapatzen ahal
bertze beldur bat ere badut nik
hau ere ez bait zaut igual
ez nuke nahiko baina beldur naiz
euskara maite hau dadin gal.

Irieder: Mendiburu, zuretzat ere gaia: Zerk beldurtzen zaitu gehien?

Mendiburu: Gehien beldurtzen nauen gauza da
gerlaren sua ta kea
gizonak gizon anaier egin,
egin dion atakea
bake bide ta amodioa
nolazbait lork ditaieka
hori da ene eskea
eta ez da hain nekea

gerla berenaz munduan dakit
ez dela arras merkea
ni beldurrez naiz oraino ere
jinen zaukunez bakea.

Mendiburu: Gerla bidetan hainbeste gizon
Euskadin baita erori
hola jarraiki bide txarretik
ezin dut opa inori
aldiz gutizi haundiena dut
bake zuzen eder hori
bait naiz bakearen txori
kantu alaietan jori
bake oso bat nahi dut hemen
Euskadi hunen sokorri
gauza onena hori litaike
behar bite luke etorri.

Mendiburu: Zerk beldurtzen nau zeren beldur naiz
entzun duzu arramantza
debruak edo Satanek beti
guregan egin du dantza
ta badakizu Paris ta Madrid
beti dela zapalkuntza
lehertuz gure hizkuntza
nun da guretzat laguntza
beldurrez naiz bai baina ez dut gaur
osoki galdua funtsa
bake oso bat negoziatuz
hori dut nik esperantza.

Irieder. Arzallus zuretzat azken puntua zortziko nagusian bertsoa osatzeko hau duzu: "Etsipena zen leku orotan argi
berri bat piztu da".

Arzallus: Euskal Herria bi zati eginez
beti hortxe dago muga
negutik udaberrira eta
ondoren heldu da uda
abertzaleen kuraia hori
Iparraldera heldu da
etsipena zen leku orotan
argi berri bat piztu da.

Irieder: Gartzelako gaia hiru bertso nahi duzun neurri eta doinuan osatzeko hau duzu: Zerk beldurtzen zaitu gehien?

Arzallus: Biharko Euskal Herrian dugu
euskaldun denen ustea
ez dakit horri buruz nolatan
dabilen hemen gaztea
hori ikusiz nahiago nuke
nere begiak hestea
gehien beldurtzen nauen gauza da
Herri hauze frantzestea.

Aberri Eguna pasatu da
ta ez da izango azkena
hortxe pizten da Herri zaharrak
dadukan itzaropena
mugaz gainetik indar berrituz

guk ditugun anitz pena
Herri hau bait da beti geroan
sinistea dutenena.

Gure ustetan Herri zahar hau
beti bait doa gorantza
guk horri buruz egiten dugu
gure oihu ta arrantza
bihotz erdian sartuagatik
hainbeste mila arantza
ainitz beldur nik badaukat ere
beti gora esperantza.

LEITZAKO KANPORAKETA

1989.ko apirilak 9a

Herriko zinema guztia beterik zegoela arratsaldeko bostetan hasera eman zitzaion saioari. Gai jartzaile lanak Mikel Tabernak egin zituen.

Parte hartu zuten bertsolariak hauek izan ziren:

- | | |
|---------------------------|-------------------|
| 1. Bautista Perurena | 6. Moises Jaso |
| 2. Joxe Migel Argiñarena | 7. Patxi Zeberio |
| 3. Manolo Arozena | 8. Antonio Olano |
| 4. Anjel Martikorena | 9. Lontxo Aburuza |
| 5. Joxe Fermin Argiñarena | |

Tabema: Perurena eta Jose Migel Argiñarena aita- semeak zarete; goizean goiz jeiki zarete bakoitza bere lantegira joateko. Perurena aita zara eta abarka pareta jantzi duzu landara joateko; zu J.M. Argiñarena semea zaitugu eta briloa ongi ateratako zapata dotoreekin ofizinara zoaz. Hiruna bertso zortziko haundian Perurena hasita.

Perurena: Abarka zaharrak jantzi ditut ta
hastera nua lanian
errenditu beharra dago gaur
haundiagon esanian
seme faltarik ez det izandu
zuk jan eta edanian
danak zuretzat izango dira
aita zaharra hiltzen danian.

J.M.Argiñarena: Baserri hontan bota det lehendik
nik majina bat izerdi
eta etorkizunik balego
hori litzake gaitzerdi
gero neretzat diren kontuak
aita ere ez dago garbi
ofizinara nijoa behintzat
ta zuk baserrian segi.

Perurena: Beti lanian ibili naiz ni
asto zaharra edo mula
badakit lantegi hortatikan
etorri gutxi degula

baina zurera irixterikan
ez det izandu inula
ez pentsa zuk e lanik ein gabe
inundik jango dezula.

J.M. Argiñarena: Egin gabe bizi naikenik
aita ez dizut esango
baina erantzun murrizkian nik
ere ez dizut emango
ta zu hiltzean ondasun danak
neretzat dirala izango
gerorako nik ez det behar
baizikan aita oraingo.

Perurena: Zaharrentzat esperantza onik ez
ez da asunto ederra
ea aitag zuzentzen duen
semiak eindako okerra
bere kontura noizbait hasteko
aitak badauka aiherra
itimrarikan ez du hala baino
semia daukat alperra.

J.M. Argiñarena: Aita ez zazu esan semea
horretxen alferra danik
detan eskola apurra hartu
bait det hortan zuk emanik
eta ofizinako bidea
hargatikan hartu det nik
baserritikan gaztearentzat
ez dago etorkizunik.

Taberna: Orain Arozena eta Martikorena. Zuek biok gaztetan elgarrekin ezkontzekotan ibili zinaten. Ondotik ordea urrundu zinaten bakoitza bere aldera. Urte asko pasa dira elkarren berri izan gabe. Gaur ustekabeen topo egin duzue, zu orain Arozena mutil zahar eta zu Martikorena andre alargun. Arozena hasita hiruna bertso zortziko nagusian.

Arozena: Bizi modua denentzako da
oso zaila edo gaitza
urte ondoren ikus leiteke
eman lezaken emaitza
ni hor mutil zahar ia zahartuta
justuan dadukat hitza
ta zu maitea hainbat urtetan
orain zer moduz zabilta?

Martikorena: Gaztetan argi ibili ginan
gero egon gera ilun
zu ere nunbait bazinan baino
nik ez bait nakian nun
zurekin alkar ikusitzeko
aspaldi gogua banun
orain bakarrik bizi naiz baina
Jaunan grazia probatu nun.

Arozena: Bere denboran gaizki eginak
hain ondorena zorrotzak
lehen alai nitun nere begiak
ta alai nere bihotzak
orain betiko hortxe galdu nau
bakardadeen morrontzak
gaurtik aurrera bero zaizkazu
aspaldi hankak ttut hotzak.

Martikorena: Adiskidea bide hortatik
oso ongi ez zabiltza
oraindik ere maite zaitudala
ematen dizut nik hitza
itxura ona dadukat eta
pixka bat saiatu zaitza
nahi badezu oraindik ere
zabalik daukat bihotza.

Arozena: Zure esanak negar malkoaz
bustiak dizkit begiak
oraindik urrun ez dira joan
lehengo maitasun guztiak
ni ere bakarrik aspertua naiz
esan ezkerro egiak
bizi berri bat hasi dezagun
ta ezkon gaitezen biak.

Martikorena: Lagun maitea ikusten zaitut
nik intentzio onean
zure hitz hori sartu zait neri
bihotzaren barrenean
oraindik ere ikusten zaitut
nik sasoirik onenean
adiskidea ezkonduko gera
zedorrek nahi dezunean

Tabema: Joxe Fermin Arginarena eta Moises Jaso. Zu Argiñarena lantegiko nagusia zara, enpresa krisisan dabilela to Jasori ez diozu soldatarik ordaindu azkeneko hiru hilabeteetan. Hiruna bertso zortziko nagusian Argiñarena hasita.

J.F. Argiñarena: Kopeta beltzak ikusten ditu
aspaldian nagusiak
hiru hilabete kobratu gabe
izaten dira luziak
baina krisis tzar hori dala ta
datoz kontu itxusiak
hemen enpresa altxa behar du
langile ta nagusiak.

Jaso: Arrazoi ona eman dezula
neri hala iruditzen zat
nausi maitea aldamenetik
gaizki ez zerade mintzat
guztia ere ezin ordaindu
daukazula askorentzat
besteak baztar utzi itzazu ta
etxea izan deiela neretzat.

JF Argiñarena: Hogeit bat urte sartu zinala

bete joan dan abendun
orain artean gure enpresa
martxa politean gendun
baina bizkarra guztiok eman
dezagun behar dan ordun
nahiz hiru kobratu gabe eduki
lehen asko kobratu zendun.

Jaso: Lehenago asko kobratu nuen baina
hainbeste nintzan nekatuta
aldamenetik aitormena duzu
ez zaude ukatuta
eman zenduen kontrata ere
oraindik ez da bukatuta
ni pobre zertako utzi
ta zu aberastuta.

J.F. Argiñarena: Arrazoi zorrotza edo eskasa
Moises didazu zuzendu
zuk ere zerbait arrazoi dezu
nik ezin dizut gaur kendu
denon artean berriz enpresa
behar genduke mantendu
gobernatzen ez den behiak ere
esne gutxi ematen du.

Jaso: Gertakizun hau dadukagu
Ferminek kalkulatzen duanez
aste betea nunbait egina
egongo da hor bai lanez
ni ere ezin aspertu naiz
neronena esanez
agindu asko egin zun baina
ezer gutxi emanez.

Taberna: Zeberio, Olano eta Aburuza. Jakina da Iruñeatik Donostiara joateko bide berria, autopista edo, egiteko erabakia hartu duela bai Nafarroako Diputazioak, bai Gipuzkoakoak. Bide hori Leizaran bailaratik pasako omen litzateke. Hori dela ta hemen elkartu zarete. Zeberio baserritarra zara eta bide hori zure baserriaren gainetik pasa nahi dute eta egitearen kontra zaude. Olano kamioi txoferra zara. Egunero egiten duzu Iruñeatik Donostiako bidea eta ongi ikusten duzu egin nahi duten berria. Aburuza, Gabriel Urralburu, Nafarroako presidentea zaitugu, Gipuzkoako Diputazioarekin batera plan horren egilea. Patxi Zeberio hasita, hiruna bertso zortziko nagusian.

Zeberio: Entzun deten albiste horrek
ez dit batere egin grazi
horregatikan Urralbururi
hizketan behar diot hasi:
"Bazekiat autopista horretan
haizela hi hor nagusi
baina ondo egindako gauzari
ondo behar diok utzi".

Olano: Txofer zalea naizen ezkerro
neretzako hori hobe
badakit baserritar horrentzat
daudela mila bat lege
baina nik esan nahi nuena da
guztiorrentzako hobe

egin behar litzakela hori
inoi kalte egingabe.

Aburuza: Inoi kalterik egin gabe guk
horra hor doaz egiak
baserritarrak etorkizunak
ez ditu bate garbiak
era honetan jarriak ditu
Europa honen legiak
derrigorrezko egin zaizkigu
une hontan autobiak.

Zeberio: Zure puxkari egin diozu
orain ere zuk heldu
ta baserrian diru pixka bat
nik egin behar hor galdu
autopista horrek fundamentua
gaurko honetan bai al du?
nik lasai utziko det hori
herriak eskatzen badu.

Olano: Errexa ez da entzule jaunak
honenbestean esanda
txofer zaleak badakizute
hemen hoinbesteino landa
esan nahi nuen kalterik bada
naturarentzat izanda
sufritzen txoferrak ibiliko
gera mesede ez bada.

.Aburuza: Txoferrak beti berekin dauka
Olano hainbeste neke
ta baserritar hutsaren truke
zabiltzanikan ez uste
hiri erdian etxebizitza
laister jarriko dizute
eta horixe gutxi ote da
baserri zaharraren truke.

Zeberio: Txoferrari ez zaio inportik
joatea goitik edo behetik
eta barkatu ein beharko du
gaur nik hemen esategatik
Urralburu atera zera
kaminuko raiatik
hargatik segi behar du hemen
bakoitzak bere bidetik.

Olano: Txofertza ez .da ez hara jaunak gaur
oso onan ofiziua
esan nahi nuen lan hortarako
hartu nuen biziua
baserri hori lurperatzea
da oso tristegarritzua
txoferrarentzat mesedeik ez ta
onentzat negoziua.

Aburuza: Lantegi denek izaten dute
jaunak ondoren ordaina
eta alperrik dantzatzan duzu
une honetan mingaina
txoferra zure mesedeko da
beserritarra ere baina
autobiakin lotzen ditugu

Donostia ta Iruna.

Taberna: Arozena eta Olano. Zuri Arozena zirugia estetikoa egin dizute. Aurpegia nola gelditu zaizun ikustera ispulara joan zara eta bendak kendu dizkizutenean lehen baino okerrago utzi dizutela ikusi duzu. Olano operazioa egin duen medikua zara. Arozena hasita, hiruna bertso zortziko txikian.

Arozena: Operazio honek
bazun arriskua
baina pixkat moldatu naiz
hori betikua
sendagile hau hor dago
burutikan jua
betenaioa bait da
ta ez medikua.

Olano: Mendikua nahi dezu
zuk orain juzkatu
norbaitekin nik behar
bait nuan probatu
ai lagun maite entzun
ta arren barkatu
ez nuen nik hori nahi
zu zinan tokatu.

Arozena: Ikusi ninduanen
goxo to apala
golpen pentsatu zuan
kriston martingala
zimurtuta utzi dit
kopeta azala
jarri nahi izan bait du
berea bezala.

Olano: Ez zaitia zu lagun gaur
hasi bai juzgatzen
begira zer negoen
sarri ni pentsatzen
saiatu naiz laguna
ni zuri moldatzen
baina okerra ez da
erreza zuzentzen.

Arozena: Honen aberia nola
nik orain ezkuta
edukaziorik ere
batere ez duta
ez dakit buruan jo
edo jarri multa
zoaz mendira lanera
aitzur bat hartuta.

Olano: Hara lagun nik egin
behar ditut bi hitz
egia esan mediku
ona izan banintz
hau ez da gertaera
eta hola berriz
nigana ez zan etorko

polita izan balitz.

Taberna: Arozena, zortziko txikian lau oinak hauek dituzu bertsoa osatzeko: **Mina, Egina, Fina, Bazina.**

Arozena: Alaba bat badaukat
polita ta fina
beraren txarkeriak
sortutzen dit mina
baina promesa bat nik
badaukat egina
zuretzat musu denak
txintxo bazina.

Taberna: Joxe Fermin Argiñarena zuretzat oinak huek dira:
Arrisku, Sinistu, Piztu, Txistu.

J.F. Argilarena: Bertsotan hasi eta
entzun degu txistu
betiko galdutzeko
bazuan arrisku
baina berriro ere
bertsoa da piztu
Leitza gaur ikusita
nork ez du sinistu!

Taberna: Aburuzarentzat lau oinak: Atzera, Antzera, Minbera, Aukera.

Aburuza: Gaizki eginak hemen
sortzen dit minbera
baina izena ematen
izan nun aukera
nahiz ni orain azaldu
martini antzera
ezin dezaket egin
entzule atzera.

Taberna: Joxe Migel Argiñarena. Hiru bertso nahi duzun neurri eta doinuan kanta ditzazun gaia hau duzu:
"Soldaduskan zaudelarik, igande arratsalde batez andregaiari karta idazten hasten zara. Zer dio karta horrek?"

J.M. Argilarena: Soldaduskara joan nintzan ni
gainera sasoi betez
hantxen eduki ninduten hoiek
ia-ia ni bi urtez
karta idazten andregaiari
orain arratsalde batez
sufritzeko ni nahikua naiz ta
zu lasai egon zaitez.

Nere berriak laburrak dira
bihotzeko kuttuna
noizbait utzita joango naiz
gu berezi gaituna

ez dudik izan iritxiko da
berriro ere eguna
elkarri laztan goxoak emanaz
pasatu deguna.

Ta karta amaitzeko orduak
nola diran iritxiak
eman dizkizut bihotz maitea
neuzkan berri ta iritziak
gure bihotzen arantz guztiak
eta gure garrasiak
bigunduko dira eta danei
eman nere goraintziak.

Taberna: Arozena, gartzelako gaiak honela dio: "Soldaduskan zaudelarik, igande arratsalde batez andregaiari karta idazten hasten zara. Zer dio karta horrek?"

Arozena: Neska maitea zure ondotik
derrigorren aldegina
nahiz ta zurekin bizitzeko izan
nere gain nadukan grina
etxetik urrun hainbat denbora
bizi nahi eta ezina
bai al dakizu gaur zertan dudan
nere penarik haundina?
zurekin baten ezin igaro
bihotzean dudan mina.

Nahiz ta betitik nik gorrotatu
ejerzitoan indarra
bi gauza dauzkat espetxeratu
edo kunplitu beharra
zu ondotikan urruti eta
ni hemen nago bakarra
ta gauza bat dut eskutitz hontan
zuri kontatu beharra
baina lapitzez nola idatzi
begietako negarra.

Hemen pozikan nagoanikan
kartaz ezin dizut esan
gogoan zaitut egunaz eta
berdin gaueko ametsan
espanoleri serbitzen nago
nere bihotzan ofentsan
baina kartaz hau esaten dizut
hor munduak jakin dezan
hutsa litzake hemen banengo
Euskal Herrian defentsan.

Taberna: Lontxo Aburuza, gartzelako gaiak honela dio: "Soldaduskan zaudelarik, igande arratsalde batez andregaiari karta idazten hasten zara. Zer dio karta horrek?"

Aburuza: Begira jaunak, hau ez ote da
egoera bat kirtena

Españi hauxe serbitu behar
ta nabil Madrid barrena
pentsatu gero batzutan honek
ematen dula kemena
hortik dator ondarena
baina ez nago errena
zu han utzita nere barruak
gaur sentitutzen du pena
beraz kartatxo honen bidez gaur
jaso muxurik onena.

Aburuza: Soldaduskara etorria naiz
ni hogeigarren urtean
eta ez dakit nola kristotan
gabiltzan gaur atakean
guztiok gaizki, guztiok triste
eta gaztentzat nekean
noski askoren kaltean
hobe genduke pakean
ene maitea hau irteten zait
nere azkengo kolpean
errebajea harturik hortxe
nauzu datorren astean.

Aburuza: Zigortuhkan ez nago baina
hauxe ez dugu atsegin
iheska joan nahi nuke horruntza
baina hori're gaur ezin
egoera honek, pentsa ezazu,
ematen didala bai min
baina joka nahi nuke fin
egiten dizut orain zin
nere bihotza elkartu dedin
noski beraz zureakin
eta ondoren biziko gera
gu biok bai elkarrekin.

SUNBILLAKO KANPORAKETA

1989.ko apirilak 16a

Sunbillan ere gai jartzaile Mikel Taberna beratarra izan genuen.
Bertan parte hartu zuten bertsolariak hauek izan ziren:

- | | |
|-------------------------------|-----------------------|
| 1. Eusebio Fagoaga | 5. Bautista Madariaga |
| 2. Salvador Madariaga | 6. Luis Olaetxea |
| 3. Rikardo Diaz de Maturana | 7. Bittor Elizagoien |
| 4. (Josetxo Yantziren ordezt) | 8. Joxe Mari Fagoaga |
| 5. Txomin Amorena | |

Taberna: Eusebio Fagoaga eta Salbador Madariaga. Zuek biak ehiztariak zarete, gaur mendian barna zabiltzatela zuk Eusebio sasi artean zerbait mugitzen ikusi duzunean tiro bota eta Madariagaren zakurra hil egin duzu. Eusebio hasita hiruna bertso zortziko nagusian.

E. Fagoaga: Goiz goizetikan hala beharrez
ehizera naiz abiatu
badakit esan behar dedana
ez zaizula eingo gustatu
baina soinu bat entzun det eta
ez det batere pentsatu
nahigabe zure txakurra hil det
ta bihotzetik barkatu.

S. Madariaga: Iztari honen akzioa da
egin duan nabaria
eta ni orain txalourikan'e
nola geldi naiz gabia
ehiztariak hartutzen bait du
holakoren nahigabia
nik nahiago nun ehiztaria hau
bera hil bazan hobia.

E. Fagoaga: Denok dakigu ehiztari batek
gauz onik ez dakar eta
pentsatzen nuen basurdetxon bat
han ote zegoen gordeta
egin dedana eginagatik
bihotza daukat beteta
ez da gehiago pasako hori
salduko det eskopeta.

S. Madariaga: 'Txakirrak behin'e ez du maiteko
holako ehiztari laguna
gaur nola galdu izandu bait du
betiko eginkizuna
ehiztaria zer'?, ez lizentzirik
eta ezer gabe juna
txakur gaixuak bizia galdu
ezer kulparik ez zuna.

E. Fagoaga: Gertatakoan pentsatu det nik
zer gertatu den aguro
baina sasitan zegoen eta
nik ez nekien seguro
baina nola edo hala pasa det
gaur goizez hainbat apuro
lasai zaitezke ordainduko izut
txakurra bost mila duro.

S. Madariaga: Lizentzi hori hartutzen dute
behar ez dutenak bagera
eta ehizera aizazu lagun
zertako joaten bai zera
orain txakurrarikan gabe gu
bai nola gelditu gera
holako ehiztaria xelebrea zera

gehigo ez zaite atera.

Tabema: Olaetxea eta Batista Madariaga. Hauteskunde garaian gaude. Biek herriko alkate izateko zerrenda ezberdinen buruan zaudete. Zuetako bakoitzak herritarrei sinistarazi behar die berea bertzearena baino kandidatura hobea dela. Madariaga hasita hiruna bertso zortziko nagusian.

B. Madar.: Alkaterako aukeratzea
jartzen da herrian kontu
baserri eta herritar danak
horrenbeste pentsamentu
Olaetxea nere lagun hau
eduki zazute kontu
hau jartzen bada izango dezute
ez hile eta ez talentu.

Olaetxea: Aizu Batista arrazoi eman gabe
ez zaitut aixa utziko
nere aldian gertatzen zera
gizarujua mutiko
ni herri hontan zure artean
aixa naiz ba nagusiko
gazte guztiai lana nahikoa
nik bait diot bai jarriko.

B. Madar.: Pentsa zazute gizona honek
ez du gustu ho(r)i beteko
alperkerian asko kosta da
bere ileak joateko
talentuak'e gastatu ditu
herria aurrera emateko
hontaz aurrera pentsa zazute
onena dana jateko.

Olaetxea: Madariaga gaur bai dihua
neri gaizki esatera
berak kulpak ditu eta ni
utzi nahi bait nau atzera
ezazula joan Madariagari
lagunurkoa galtzera
nere herrian gazte ta zaharrakin
ondo konponduko gera.

B. Madar.: Orain artean ni saiatu naiz
beti neronek eginakin
engainatuta gaur ez egon ba
gizon buru urdinakin
Madariaga saiatuko da
aurrera ahaleginakin
baina inoiz ez zaite fiatu
gizon burua soilakin.

Olaetxea: Zuk esandako hitz txarra hori
ez daukat nik atzendua
zure mingain txarra hori
nolabait dan gailendua
nik badakiat zu zeradela
herri horretan galdua
burua soila izanagatik

etorri zait talentua.

Tabema: Elizagoien eta Joxe Mari Fagoaga. Zuek biok ez duzue bizia berdin ikusten. Zu Elizagoien oraindik bizitzeko gogo betean zauden larogei urteko aitona zara eta zu, Fagoaga, dagoeneko bizi azpitu eta etsitua zauden hogeituro urteko gaztea. Elizagoien hasita hiruna bertso zortziko nagusian.

Elizag.: Gazte maitea entzun ezazu
zer esaten dun aitunak
nahiz eta zure etorkizunak
dauzkazun nahiko illunak
esperantza're behar du izan
mundu hontan euskaldunak
eta oraindik etor litezke
behar ditugun egunak.

J. Fag.: Nik hogeituro urte bete ditut ta
pasatu naiz edadetik
baina lanikan ez daukat eta
hortxe nago horregatik
eta aitona hor ikusten det
biziaz erretirotik
neuk hoixe daukat gaur jan beharra
aita ta aman eskutik.

Elizag.: Mundu honetan nahigabeen gaur
hemen datoz desgraziak
eta gaztea kezkatzen zaitu
egun hor langabeziak
nere buruak hamaika gose
ta hainbat gerra pasiak
ta esperantza oraindik badut
hemen neronen biziak.

J. Fag.: Hauxe daukagu trantze polita
gaurkoz gazteak degunez
hogeituro urtean bizitua naiz
aita ta amak emanez
orain neronek egin nahi det ta
ho(r)i da lanikan ez danez
hauxe bakarra nahi nukena da
bizi neronek eginez.

Elizag.: Zuk dadukazun lan gose hori
ez da izango alperrik
nahikoa zuzen zabiltza eta
ez zabiltza zu makurrik
lana ere zuk hartuko duzu
eta ez egin negarrik
gizon zintzoa mundu honetan
Jaungoikoa da bakarrik.

J. Fag.: Gaurko gazteak ondo dabiltza
aitona zure ustetan
baina barrua txikiturikan
gu egunero tristetan
ni nola bizi naike horrela
ba, besteak emanetan
pentsatutzen det gaur bezelaxen

izan larogei urtetan.

Tabema: Salvador Madariaga eta Bittor Elizagoien. Madariaga Belateko maldan gora zoaz zure kotxe deportiboan eta halako batean topo egin duzu lasai eta mantso doan idi gurdiarekin. Hori aintzindu nahi eta ezin. Zu Elizagoien idiekin dihoan itzaia zara. Madariaga hasita hiruna bertso zortziko txikian.

S. Madariaga: Libre izan behar zan
kotxean bidia
traste zahar bat aurrean
hor nauka jarria
kulparik gabe izortu
izan det kotxia
jo eta lehertu bait det
sartu zan idia.

Elizagoien: Kotxe ederrarekin
honen komeria
aurrera pasa nahirik
oihuka hor ia
jarri ezazu neri
zuk itzal haundia
lehengo ohitura zaharra
ez al da idia?

S. Madariaga: Bidearen erdira
idiak ateta
ta kotxeak kulparik
bai al du hor eta
itzaia behar du hartu
lehenikan arreta
mantxogi baldin ba joaten
pentsuaz aseta.

Elizagoien: Kotxe horrekin egun
laister abiatu
kistoren zarata zuk
dezula montatu
idiak e behar du
bidean pasatu
legeak hala dio
zuk errespetatu.

S. Madariaga: Kotxeak libre behar du
beti're bidia
azidentiak hola
tokatutzen dia
alrebesko eskutik
bazuan idia
to karrua gainera
patentik gabia.

Elizagoien: Aldapa gora noa
idi eta guzi
to bozina joka zu
hor zerade hasi
kotxe ederrarekin
hainbeste fantasi
pobreak ez al du gaur

biderik merezi?

Taberna: Fagoaga anaiak. Biak senar-emazteak zarete eta makina bat urte lanean pasa ondotik aurtan bakantzetara joatea erabaki duzue. Zu, Joxe Mari emaztea zara eta Benidormera joan nahi zenuke hango ondartzetan eta goxo-goxo egotera. Zu Euxebio senarra, Fiteroko bainu etxera joan nahi duzu, jakina jan eta edan poliki, ur epeletan sartu, mus partida lasai lasai..., Joxe Mari hasita hiruna bertso zortziko txikian.

J.M. Fagoaga: Lana ta lana egin
hainbeste urteta
merezia bait gendun
hainbeste pasata
biak ederki samar
dezagun disfruta
nik behintzat etor nahi det
izterrak beztuta.

E. Fagoaga: Lana eiteko jaio
ginanak mundura
bakazioak hartzeko
etorri da uda
gauza bakarra etorri
zait neri burura
reumantzat ona omenda
Fiteroko ura.

J.M. Fagoaga: Hainbeste joan zera
medikuangana
ta orain hartu degu
horrelako plana
etorri zaitea zu
emazteangana
euzkia hartzea ere
ez al dezu ona.

E. Fagoaga: Diru pixka bat egin
jaunari eskerrak
ta honek hartu ditu
orain bide okerrak
beraiek egoteko
erakutsi izterrak
Fiteron ondo pasa
gindezkela ferrak.

J.M. Fagoaga: Ikusiak dauzkagu
guk hainbeste laino
gaur arte ez bait degu
hau izan egundaino
han hartuko bait dezu
nahi den aina baino
nik bikini jarrita
zuk "traje de baino."

E. Fagoaga: Garbi esango dizut
to zu lasai egon
gauz onik ez dakarre
andre eta gizon
zergatik ezin joan
pasa uda Bilbon
zortzi egun Benidorren

to zortzi Fiteron.

Taberna: Ricardo, zuretzat puntua:
**Arraietan pobretu
zaigu Bidasoa.**

Diaz de Maturana: Ta geroztik bizitza
ez dugu gozoa
arrantzaleentzako
ez da eroso
izorratu bait zaie
bizitza osoa.

Taberna: Amorena, zuretzat ere puntua:
**Zahartzea ari gara
urtetik urtera.**

Amorena: Hori ikusten det nik
gutxi gora behera
urteak pasa eta
ho(r)i da gure aukera
zahartzean miserikordin
sartuko al gera.

Taberna: Bautista Madariagari azken puntua:
**Langileak kostata
jaten du ogia.**

S. Madariaga: Inoiz esateko hori
esan dezu egia
oraingo gazteekin
hau da komeria
gurasoena jan da
hau alperkeria.

Taberna: Amorena, zuretzat zortziko nagusian bertso bat osatzeko azken puntuak honela dio: "Periodikuak ustekabea ematen dit egunero"

Amorena: Gai hartuta ez naiz egoten
sekulan ni ere bero
gaurko berriak etortzen dira
nahigabe're hunezkero
hainbeste hilak, hainbeste preso
sinistea dago gero
periodikuak ustekabea
ematen dit egunero.

Taberna: Elizagoien, zuretzat ere gartzelako lehen ariketan, azkeneko puntuak honela dio: "Periodikuak ustegabea ematen dit egunero".

Elizagoien: Tregua baten hilabete bat
hemen pasa eta gero
egia esan ia jartzen naiz
nere burutikan ero
zerbait hoberik Euskal Herrian
genduen eta espero
periodikuak ustekabea
ematen dit egunero.

Tabema: Gartzelako bigarren ariketa, nahi duzun neurri eta doinuan hiru bertso bota ditzazun gaiak horrela dio:
"Esperantzarik gabe hiltzeko zinen, hilzorian. Baina ustekabea sendatu eta bizitzen hasi zara berriz. Zer
egin nahi duzu?"

Elizagoien: Nahiz txarra neukan nere barruan
eta urritzen indarrak
larritasuna hortan zedukan
hemen nik bizi beharrak
bihotza neukan triste tristea
ta begietan negarrak
orain honera datozen berri
horiek ez dira hain txarrak
lehendabiziko bihotz-bihotzez
Jaungoikoari eskerrak.

Uste nuen nik hilko nintzala
ta naiz bizirik agertu
zuen aurrean hementxe nago
tenterik eta hain gertu
egun batean sufritzeko ni
egin bait nintzan hor sortu
baina gaur egun nere buruak
hauxe nahi luke aitortu
orain artean ziran negarrak
nahi ditut irri bihurtu.

Orain artean izan dedana
hain bizimodu zorrotza
egun batetik bestera zegon
nere zaintzan heriotza
alde batetik beste aldera
hil zori horretxan hotsa
baina nik ere zerbait egin nahi
ta hauxe gauza aproposa
neri lagundu duten guztiei
eman nahi diet bihotza.

AZKEN SAIOA

BAIGORRI

1989.ko Apirilak 23

Finalistak: Mendiburu
Arozena
Arzallus
J.F. Argiñarena
Xalbador II
J.M. Argiñarena
Ezponda

Gai jartzaileak: Daniel Landart
Mikel Taberna

AGURRA

D. Landart: Jaunak eta andereak, adiskideak arratsaldeon. Gaur dugu Nafarroako XIX. Bertsolari Txapelketaren Finala.

26 bertsolarik parte hartu dute eta gaur zortzi izanen ditugu hemen.

Epai mahaiean izanen ditugu: Emile Larre, Aingeru Epaltza, Mixel Itzaina, Jean Pierre. Etxegoien, Joxe Urroz eta Mikel Bujanda.

Bertsolariak gaurkoan, Mendiburu, Arozena, Arzallus, Alkat, Joxe Fermin Argiñarena, Xalbador II, Jose Migel Argiñarena eta Ezponda izanen ditugu. Eserita dauden ordenean bertsolari bakoitzak egingen du orain bere agurra.

Mendiburu: Agur bihotz erditik
entzuleak oro
egon bihotz bero
hauteskundeak dira
guretzat urtero
auzapez bat aski ta
zortziek espero
zoin den gaurko auzapez
ikusiko gero
partida hasten da to
parioak libro.

Arozena: Arratsaldeon Ifarra eta
Hegoaldeko laguna
etorri zaigu pure indarra
probatutzeko eguna
batasunaren mezua danez
beti ematen deguna
txapelagatik ez bedi hautsi
naparren anaitasuna.

Arzallus: Arratsaldeon lehendabiziko
gure entzule maiteak
ez dakit ezer balioko dun
alegina egiteak
dardar batean nago ni eta
halatsu daude besteak
gure onean sartzen bagaitu
zuek txaloka hasteak
bertsotan hautsi nahi genituzke
Nafarroaren kateak.

Alkat: Ezker Pareta dago
onorez jauntzia
nahiz bertsolaria
berriz biluzia
Xapelketa dagota
gaur azken auzia
onena izan bedi
gaurko nagusia
zuentzat egingo dut
ahal den guzia.

J.F. Argiñarena: Mendiburu, Ezponda,
Alkat ta Xalbador
bere bizar ta guzti
Arzallus da hor
forofo askorekin
Arozena dator
ni berriz anaiakin
Baigorri nator
zer batasun da sor
bertsoak duna lor
guk horrenbeste zor
ta gaur txapeldun nor?
tongo egin asmotan
ez gatoz inor.

Xalbador: Nere xapela behar balu're
horrek airean igorri
ez nagoke gaur uko eginen
erran gogo dudan horri
menturaz hortan hek kausituko
baitute zerbait sokorri
lehen agurra dut urrun diren
zure sementzat Baigorri.

J.M. Argiñarena: Arratsaldeon ta ongi etorri
nere sentimentu finez
opa dizuet goza zazuten
gaur gurekin zinez
lfar eta Hegoak
txori baten hegoak
hemen bihotz bat eginez
mugak errez hautsi ditugu
bertsoaren eraginez.

Ezponda: Arratsaldeon jaun andereak
bihotzeko euskaldunak
agur irrati ta telebista
gure lankide lagunak
ahantzi gabe ezin etorri
etxean egon direnak
ea osatzen ditugun hemen
gaur Landarteren ordenak
zer ein behar den baginakike

egiteak dauzka lanak.

Landart: Bertsolariak finalean egin beharreko lana hau izanen da:

- Ofizioka zortziko nagusian hiruna bertso.
- Ofizioka launa kopla.
- Puntua erantzun eta lau oinak.
- Ofizioka zortziko tipian hiruna bertso.
- Gartzelako gaian:

- *Azken puntuarekin bertsoa osatu.*
- *Gai bati hiru bertso.*

Landart: Orain ofizioka zortziko haundian lehena eta bigarrena. Zuk Mendiburu ez duzu ez etxe, ez lan, ez familiarik, halako ibiltaria edo buhami bat zara eta hori gustatzen zaizu. Zu, Arozena, jaun aberatsa zara. Gaur, Mendiburu, Arozenaren atea jo duzu jateko zerbaiten eske. Zuk Arozena jana, etxea eta lana eskeini dizkiozu. Hiruna bertso zortziko haundian. Mendiburu has bedi.

Mendiburu: Erromesa naiz oso pobrea
mendiko mutiko basa
zuk Arozena ez ezagutzen
ni nagoen mutil klasa
ez dut etxerik, ez dut dirurik
dadukat denen eskasa
zertxobait otoi eman zaidazu
bai zera zu aberatsa.

Arozena: Aberats naiz bai egia esan
dena tapatua urrez
eta zu hemen nere atera
etor zindezke gezurrez
ikusten zaitut haragi faltan
to osatua hezurrez
alper xamarra ote zeraden
ia jarri naiz beldurrez.

Mendiburu: Ez da alferra, ez aberatsa
zure bortako lorea
ta zuk erantzun didazun horrek
sortu dauta dolorea
hizketan eta ontasunez zu
zaude osoki noblea
agian zure bihotza dago
errana baino hobe.

Arozena: Arazo asko izaten dira
bakoitzak bere bizitzan
onartzea ere pentsatzen dut nik
baina gaur nere baldintzan
sartu zaitea nere etxera
zerbait jateko peskisan
ru're ez nintzan aberats izain
hola ibili banintza.

Mendiburu: Horrela beti urrikal zaite
pobreki gagozin danez

kanpoan ezin bizirik gaude
erreka hoitan etzanez
konturatu naiz to arrazoinka
hemen naiz gaur zuk esanez
ez zira ere aberastuko
zuk denak eni emanez.

Arozena: Zeure gustora hautsi zenduan
lotutzen zindun katea
ni borondatez beti izan naiz
ta hau nahi dut esatea
denbo luzean hola jarraitzek
sortuko dizu kaltea
baina unorez baldin bazatoz
zabalik duzu atea.

Landart: Bigarren bikotea: Arzallus eta Alkat. "Zu, Arzallus, emakumea zara eta haurdun zaude esperantzetan. Zu, Alkat amaren sabelean, baina sortu nahi ez duen haurra zara." Hiruna bertso zortziko haundian. Arzallus has bedi.

Arzallus: Zu nola zeran maitasunaren
ondorioaren lora
zure amatxok esaten duna
beharko dezu gogora
hortik kanpora irtetzeko ere
badatorkizu denbora
ez dezu beste erremeiorik
laster bazoaz kanpora.

Alkat: Kanporatzeko etortzen zauzkit
zoritxarrean orduak
ama maitea sortu aurretik
zunzendu otoi konduak
ez dakit bada neretzat zer den
zer erakusten munduak
sabeleraino entzuten ditut
faltsukerizko ohiauak.

Arzallus: Egia da bai faltsoa dela
munduan gaurko eguna
zu sortu nahian hala ta guztiz
hartu nun senar laguna
sabela ere estua bait da
gainera oso iluna
nere besotan probatu zazu
ama baten maitasuna.

Alkat: Amak deraukan maitasun hori
bertze nonbait gaur daikea
baina etxean entzun izan dut
bada sua eta kea
sabel barruan gehiago atxik
egin nahi dut eskea
munduak ez daut eskeiniko ez
zure barneko bakea.

Arzallus: Nere barruan ezin iragan
bere bizitza osoa
hortik atera ta ikus bitza

etxea eta hauzoa
zuri begira dago aitatz
baita ere nere altzoa
altzo hortantxe ikasi ditzan
kantua eta bertsoa.

Alkat: Ez dakit zer den kantua eta
zer dagon bertsolaritza
zure sabelak hazi nau eta
zer da kanpoko bizitza?
ama maitea sortu aurretik
entzun nahi nuke hitza
mundua baino nahiago dut
ama on baten geriza.

Landart: Hirugarren bikotea: Joxe Fermin Argiñarena eta Xalbador. Zuentzat gaia: "Zuek biak langabezian zaudete. Zuk, Argiñarena lan bila Parisera joatea erabaki duzu. Zuk, Xalbador nahiz eta lanik ez ukan hemen gelditu nahi duzu." Hiruna bertso zortziko nagusian; Has bedi Argiñarena.

J.F. Argiñarena: Nahiko komeri guk lagun zaharra
gaur badizkiau bizitzen
nahiz eta gure guraso haiek
saia gu jator hezitzen
langabezian Euskal Herrian
ez diagu ta luzitzen
ogi koxkor bat jateko era
egingo al tit Parisen?

Xalbador. Parisera joaitera lagun
nola haiz hi atrebitu
nahiz egoera gogor hunek
hortara bortxatzen gaitu
menturaz geroa hobe duk
ez duk behar hik.etsitu
ni behintzat sorleku maite huntan
nahiko diat saiatu.

J.F. Argiñarena: Nik ere ogia banedukan
hori gauza pozgarria
baina nere sendi umil hori
ikusten triste jarria
langabezian ito nahi dute
gizona ta aberria
baina goseak hiltzea ere
ez al da penagarria.

Xalbador: Parisek agintzen dik bai hemen
geaudek gu haren mutil
jada abian haiz beraz ta
ni ez joan nahiz nabil
badakik lagun euskaldunak gu
denetan zoin giren abil
euskaldunik Euskal Herrian ez
dik sekulan goseak hil.

J.F. Argiñarena: Iparragirre bezain abilak
kanpoan ibili dia
horregatikan Euskadirentzat

zuten maitasun haundia
errespetatzen dit gaur Xalbador
hik hartu dekan idia
haserre gabe egin dezagun
guk bakoitzaren bidia.

Xalbador. Joan ziren lagun maitetaz nik
izaiten ditiat lotsak
lagun entzun-zik mesedez orai
nik eginikan dei hotsak
bertan gauden biak, ta deneri
erakutsi gure hortzak
gu urrun joanez nagusitu
bai laizke hemen arrotzak.

Landart: Laugarren to azken bikotea: Joxe Ngel Argiñarena eta Ezponda. Hauentzako gaiak honela dio: "Joan den neguko idortea zela eta artzain eta laborari anitzek su eman diete lar edo sasiei mendia garbitzeko asmoz. Ohian osoak erre dira. Zu, Argiñarena, laboraria zara eta su emaileen artean ibili zara zeure abereentzat belar gehiago izanen duzulakoan. Zu, Ezponda, laborari gaztea zara eta laborantza eskolan erakutsi dizute hori kaltegarria dela." Arginarena has bedi.

J.M. Arginarena: Zer egiten ari naizen
jakiteko hainbat adin
aiton zaharrak badadukala
beharko huke hik jakin
larre hoieri su emanikan
zuk ez zazula hartu min
Nik borondate onez egin det
belar berria sor dadin.

Ezponda: Belar berria sortuko zaigu
hasia den primaderan
eta laguna ibili zaite
gizonezkoen maneran
neri betitik hau erakutsi
izan deraute eskolan
gizonak lana egin behar du
eta surikan ez eman.

J.M. Rrgdnarena: Zer eztabaida sortzen dituen
hemen zentzu eskasiak
mendi kontuan lehengo zaharrak
gaude ongi ikasiak
zertako dira mendiko ote,
zuhaitz txar eta sasiak
oraintxe baino lehenago erre
behar nituen gaziak.

Ezponda: Gure eremu politena da
suarekin kiskalia
suain ondolik ezerre ez da
zer ote daike balia?
zuk erratako laparretan'e
txoriek dute kabia
gauzak, berak, onduz doatzi-ta
har zazu pazientzia.

J.M. Argiñarena: Arrazoi dezu mendi hoietan

gaur horrenbeste txori
beren kabiak eginez ere
egia da gaur hori
baina sasiak kenduta ordin
jartzea dana belardi
hori da gure bide zuzena
eta ikusten da garbi.

Ezponda: Garbitasuna ikusi nahian
laguna jarri zait estu
to hortarako hunek bait dauka
mendietan hainbat jestu
ez du balio sasoia baino
lehenago eitea xistu
zerua behar den leku hontan
ez infernurikan piztu.

Landart: Orain koblaka ariko dira gure bertsolariak eta deituko ditut Alkat eta J.F. Argiñarena.

Gaia: "Aita-semeak zarete. Zu, Alkat, aita zara eta semeari animala bat erosteko eta etxera ekartzeko baimena eman diozu. Zu, Argiñarena, semea zara eta tximinoarekin agertu zara etxera." Alkat hasi eta launa kobla.

Alkat: Baimena eman dautzut semea
ta tronpatu zira naski
zu etxe barnean izan geroz
bazen ziminorik aski.

J.F. Argiñarena: Esan dekenarekin gaur Alkat
ni batez ados ez niok
zer bikote polita egingo
tximinoa eta biok.

Alkat Gaurko gazteak erotzen dira
naski dago betikoa
gure etxea laborantza da
ez da batere zirkoa.

J.F. Argiñarena: Erakutsitzen gure aita honek
jarri ditun enpeinuak
txinunoak ikasiko ditu
nere aitaren keinuak.

Alkat: Aitarenak ikasiko baina
lehenik naski berea
etxetik kanpo zoaz horrekin
einen dezute pareak.

J.F. Argiñarena: Gure etxean errita asko
hori ez zan nere nahia
tximinoa, aita maitea zu
az al da gauza alaia.

Alkat Gauza alaia izan dilaite
baina nik ez dut atsegin
baimena lehen eman nuen ta
konpondu hor amarekin.

J.F. Argiñarena: Orain amakin sartzeko ere
ez degula tenoria
estimatuko degu aurrera

tximinoan umoria.

Landart: Arzallus eta Xalbador. Ezkonberriak zarete, zu Arzallus senarra. Ezkondu ondorengo lehenbiziko egunean lanetik etxera etorri eta bazkaldu ondorean emazteak mandarra ematen dizu esanez: "Ontzi hoiek garbitu behar dituzu". Zu Xalbador emaztea zera.

Arzallus: Ezkondu aurrez maitasuna guk
nola genduen gainezka
orain lan gehiegi daukadala
badaukat nik nahiko kezka.

Xalbador. Ontziak garbi ditzan bait diot
nik senarrari agindu
ondo bazkaldu duta ontziak ez
ditia berak zikindu!

Arzallus: Zortzi ordu lana egin ditut
horrekin aski da noski
arratsaldean garbitu itzazu
"jabon de Narseil" to guzti.

Xalbador Nik agindua ez egin nahi
senarra bait zait jazarri
ontziak garbitzen ez baditu
deus ez du izanen sarri.

Arzallus: Onerako bakarrikan bada
nik daukadan soziua
hamabost egun baino lehenago
badator diborziua.

Xalbador. Ezagutua zaitudala nik
urteak badira zazpi
ezkont aurretik oheko hura
beti bazitzaizun aski.

Arzallus: Honek emandako aginduak
egun utzi nau ni mutu
pena dut zazpi urte hauetan
ez dedala ezagutu.

Xalbador: Gu eztabaidan hartzea naski
bait dugu bien kaltean
utzi porroska horiek, garbi
ditzagun bien artean.

Landart: Arozena eta Joxe Migel Argiñarena. "Zuek biok bart parranda egin zinuten. Gaur egurdian herriko plazako iturrian ura edateko elkartu zarete." Launa kopla. Arozena has bedi.

Arozena: Arginarena ez diat hartzen
nik gizonaren itxura
atzo whisky basoan sobre
eta gaur iturrin ura.

J.M. Argiñarena: Atzo parrandan ibili ginan
Arozena eta neroni
ta ura edan bagendu ez gendun

gaur horrenbeste ur premi.

Arozena: Beti bezala atzo etxera
ez gera joan presaka
orain iturrin kendu beharra
ondorearen resaka.

J.M. Argiñarena: Su eta kean beti zurruta
nola koinaka ta whisky
atzo dotore ibili ginan
ondorean gabiltz gaizki.

Arozena: Mozkor galanta hartu genduan
eta zer erremedio
beti bezela bazterren dagon
alu hau dela medio.

J.M. Argiñarena: Kulpa guztiak lagunarentzat
ditu honek azkenean
andreak zer esan dik Manolo
etxeratu haizenean.

Arozena: Andreangana joateko ni
edan ta nola naiz fresko
egon ha(d)i pixka botila ere
bete behar dit geroko.

J.M. Argiñarena: Esan dituan guztiak noski
ez dira egi izanak
goizerako bukatuak ditu
gero hartutako lanak.

Landart: Mendiburu eta Ezponda. "Biok lanik gabe zabiltzate. Zuk, Mendiburu biok torero sartzea proposatzen diozu Ezpondari." Launa kopla eta Mendiburu has bedi.

Mendiburu: Biak gu lanik gabe gaude ta
sar gaiten beraz torero
aberastuta biak ederki
bizi behar gaituk gero.

Ezponda: Zeren horien adar haundiak
kusirikan aldi oro
hortxe irrisku asko duk eta
lan hortan ni ez nauk bero.

Mendiburu: Beldurrez hago lagun maitea
egoadi otoi isilik
jada gaur arte badiat segur
zezen asko bai nik hilik.

Ezponda: Hik gezur eta balentri asko
solasetan ainitz jestu
bizi nahi duenak zezen artean
badik sobera irrisku.

Mendiburu: Zezen artean irriskurik den
ni gaur horrek beldur ez nau
orain arte ere enseguetan

ibilki naiz egun ta gau.

Ezponda: Hire lanekin gaur Mendiburu
otoi eman zuk bakia
sar hadi eta heorrek har zak
gaur lehen adarren kolpia.

Mendiburu: Heure soinua ez duk izana
neretzat xarmegarria
nihaurk eskaini beharko deiat
zezenaren belarria.

Ezponda: Belarri hori eskuratzea
ez bait litzake itsusi
zezenak maite ditut nik eta
aparte nahiago bizi.

Taberna: Bertsolarien oraingo lana banaka egin beharrekoa izanen da. Hasierako puntua eta lau oinak emanda zortziko txikian bertso bana osatuko dituzte.

Tabema: **Batzutan irabazi
bertzeentan galdu.**

Mendiburu: Xapela ezin baita
urte guziz bildu
penatu gabe ez da
etxeraino heldu
ta aurten ere ez naiz
ni aski abildu.

Tabema: Lau oinak: **Elkar, Dardar, Behar, Azkar.**

Mendiburu: Ai entzule maiteak
egun lagun elkar
estu ta larri gaude
zanko-esku dardar
zuen laguntza dugu
Baigorriin guk behar
jokatzeko bertsotan
ongi eta azkar.

Tabema: **Gaurko eginkizunak
geroko ez utzi**

Arozena: Berandu izan bai leike
bihar edo etzi
ahal dan dena egin da ere
gu gera hain gutxi
juxtu juxtu honeraino
gerade iritxi.

Taberna: Lau oinak: **Segi, Begi, Gehiegi, Nagi.**

Arozena: Nahiz ta gure herri hau
dagon nahiko nagi
ahal den dena egin da ere
ez degu gehiegi
nahiz to negarrez jarri

sarri gure begi
bildurtu ez gaitezen
to aurrera segi.

Taberna: **Aurretik hitz goxoak
atzetik egarra.**

Arzallus: Hori horrela dela
nik badet bildurra
lehen ere hala zen eta
gero ere segurra
baina Euskal Herriari
ez egin agurra.

Taberna: Lau oinak: **Hitza, Gabiltza; Giltza, Bizitza.**

Arzallus: Guk askatasunean
nahi dugu bizitza
baina alde hortatik
hain murrizt gabiltza
batasuna genduke
indarra ta giltza
errespetat dezagun
anaiaren hitza.

Taberna: **Itzalpean dagonak
maite du argia.**

Alkat: Argiari buruz bait du
itzultzen begia
Eskual Herriak ere du
hau bildu nahia
baina eskualduna hortan
ardura nagia.

Taberna: Lau oinak: **Oker, Laster, Ezer, Leher.**

Alkat: Ainitz predikuetan
lanarentzat ezer
ainitz urrats egiten
faltsu eta oker
elgarrekin lanean
lotu gaiten laster
gure hizkuntza maitea
ez dezaten leher.

Taberna: **Lau haizetara nahi dut
bertso hau hedatu.**

J.F. Argiñarena: Etxean gaur goizean
bait det preparatu
euskeraren aldeko
gerade eratu
atzera inor hemen
ez bedi geratu.

Taberna: Lau oinak: **Umila, Bila, Mila, Dadila.**

J.F. Argiñarena: Lehengoan irten nintzan
testiguan bila
Korrikak egin ditu
kilometro mila
bakoitzak eskeiniatz
laguntza umila
euskera oi! betiko
sendatu dadila.

Taberna: **Munduan eskas samar
dago justizia.**

Xalbador: Hori nik erran gabe
zuk ez dakizia?
haren ondotik damagu
guk gure hauzia
eta hemen denek degu
bere gutizia.

Taberna: Lau oinak: **Gaztea, Betea, Atea, Maitea.**

Xalbador: Zuri mintzo nitzaizu
euskaldun gaztea
bai zira bizitzeko
nahikeriz betea
ez dezan hustu eta
ez bere atea
beti serbitza zazu
sorleku maitea.

Taberna: **Euskararekin badut
nahiko esperantza.**

J.M. Argiñarena: Aspaldian eskasa
egin dun gorantza
kenduko bagenio
bamiko arantza
ordun bai baina danok
dezaiozun bultza.

Taberna: Lau oinak: **Kontuan, Kantuan, Orduan, Munduan.**

JM Argiñarena: Bertsozaleok izan
zazute kontuan
bizi ahal bagindezke
gu beti kantuan
zorion gehiago gaur
legoke munduan
irrifar goxoagoak
gintuzke orduan.

Taberna: **Urtean gutxi dira
holako egunak.**

Ezponda: Estimatzen ditugu
heldu zaizkigunak
hemen dira adiskide
baita're lagunak
elkar maitatzen bait du
beti euskaldunak

Taberna: Lau oinak: **Itzala, Bezala, Dezala, Azala.**

Ezponda: Mamiz eskasa nago
meharra azala
euskaldun kontuan da
daukadan itzala
hemen dagon jendeak
ulertu dezala
maitatzea nahi dut
nagoen bezala.

ZORTZIKO TXIKIAN

Landart: Orain bertze sail batetara pasatuko gara. Bikoteak aldatuz jarriko ditugu bertsolariak eta lehenengo datozela mikrojonora Arzallus eta Mendiburu. Zuentzat gaia: "Frantziako Tour-ean suertatu gara oraingoan. Zu Mendiburu, tropelaren edo pelotoiaren gibeletik zoaz ordu laurdeneko atzerapenarekin. Zu Arzallus, autoan zoaz eta Mendibururen entrenatzailea zara." Hiruna bertso zortziko txikian; Mendiburu hasirik.

Mendiburu: Beraz ordu laurden bat
hori dut beranta
entrenatzaile hori
ezin dut espanta
entrenamendu asko
egin duzu alta
baina atzetik banaiz
gaur da zure falta.

Arzallus: Nere falta denikan
etzazula aipa
zango motelak dauzka
haundia du tnpa
entrenadorea naiz
ez naiz zure aita
zurekin porrotera
dijoa ekipa.

Mendiburu: Puntu luzean ona
txarra da motxean
hobe luke gaur egun

egonda etxean
zure ziklista hemen
bait dago atzean
aurrera zazu hori
hartuta kotxean.

Arzallus: Neri txorakeririk
ez zaidazu erran
nahita ere kotxean
ezin dut ereman
bera ta ni oraintxe
hasi gera teman
zelaiean galdua
aldapan atxeman.

Mendiburu: Ez dautazu zuk eman
behar zen laguntza
hartako egun ezin
naiz ibili untsa
entrenatzaile gisan
nun daukazu funtsa?
bizarretikan ere
zu zira ahuntza.

Arzallus: Txorakeriz bait dauka
burua beteta
nere aginduetan
jar zazu arreta
nik platanoz betea
bait daukat maleta
pare bat janda lehenbizi
jin Tourmaleta.

Landart: Arozena eta Alkat. Otobusean gaude eta otobus horretan han hemenka txartelak daude " Ez erre hemen"
edo " Ez pipa hemen". Biak elgarren ondoan exerita zaudete. Zu Arozena, erretzaile porrokatua zara eta
zigarroa ezpagnetara eraman duzu. Zuk Alkat, ezin duzu zigarroaren kea jasan. Arozena has bedi.

Arozena: Idatzia hor zagon
autobusan sartzen
baina batzuk horrekin
ez dira hasartzen
Alkat nere bazterren
txulo xamar jartzen
utzi zaidazu arren
bat benik erretzen.

Alkat: Zu zer apoa ziren
ta berdin leoina
bertzen libertateaz
gaur egun ohoina
zigarroa botatu
baztertu fazoina
kanpoan ere bada
nasaiki pozoina.

Arozena: Kanpora bidaltzeko

honen errezeta
ni bazterrean nago
ia-ia aseta
puruakin kopeten
joko-iot tronpeta
lehendikan ere dago,
hau nahiko erreta.

Alkat: Izan dezu begia
behin ere belztua?
otubusa txikia
gainera estua
zuregana luzatu
beharko eskua
laguna nun daukazu
zuk errespetua

Arozena: Honen desafiorik
nik gaur nola utzi
bildurtuta hemendik
gaur ezin naiz jaitsi
ez pentsa dezunikan
orain irabazi
arrokeri asko ta
fundamentu gutxi.

Alkat: Merezi ote luke
lagun izenikan
bertzen aurka horrela
ikusten da bakan
bertze eskolarik zuk
ez al duzu ukan
bularren garbitzeko
has zaite korrikan.

Landart: Joxe Migel eta Joxe Fermin Argiñarena orain Gaia: "Zaldi lasterketa batean gaude. Zuk Joxe Fermin lau mila duro edo mila franko jokatu dituzu Joxe Migelen alde. Zu Joxe Migel lasterketa egitera asto zahar baten gainean etorri zara". Joxe Fermin has bedi.

JF Argiñarena: Jinete honekin nitun
eginak lainedak
begira zer ekartzen
entrenatu ezak
alto zaharraren pausoak
dira aldrebesak
lekutara joan dira
gaur nere ametsak

J.M. Argiñarena: Nere asto zaharrarekin
egin det ahalegin
apustuan saiatu naiz
beti jator ta fin
galdu detela ta zertan
daukat hainbeste min?
trabesa nik esanda
hik ez dek gaur egin.

J.F. Argiñarena: Jokatzen dun guztiak
beldur izaten du

eta kontu hoietan
egi esaten du
Norteko tren zahar baten
antza ematen du
nunbait lastoarekin
dute ta mantendu.

J.M. Argiñararena.: Etzakela hemen esan
gaur konku txororik
ez diat nik baldarka
emanda pausorik
ta etzakela ahaztu
nik esandakorik
ez al dakik ez dagola
joko segurorik.

JF Argiñar.: Joku segurorik ez
nago ohartuta
hoge mila pezta naiz
gaurkoan galduta
zerbait egitera ni
nago behartuta
mugituko da astoa
piper bat sartuta.

J.M. Argiñar.: Asto zaharrari piparra
sartu edo ez sartu
erreminta zaharra ez zak
horrela behartu
egin zitekenik nik
ez diat ukatu
badakik hurrengoan
nere alde ez jokatu.

Landart: Arken bikotea datorrela mikrofonora Xalbador eta Ezponda. Gaia hauxe duzue: "Pilota partida dugu oraingoan. Biak pilotariak zarete. Zuk Xalbador, azkeneko partidari 22-0 galdu zenuen Ezpondaren kontra eta horregatik errebantxa eskatu diozu". Xalbador has bedi.

Xalbador: Lehen jin nindian ni
hain triste plazara
beldur haundi batekin
sendituz ikara
nik kintzerik ez egin
igual hogeitabira
ez nauk hala re beldur
nahi duka kitara?

Ezponda: Uste nuen jarriko
zela hau beldurrez
hoeitabi in nituen
to hunek baterez
berriz jokatze hori
neretzat da errez
dasafioz badaki
baina pilotan ez.

Xalbador Desohore hunekin
ni ez nauk biziko

bizian izan diat
hau lehenbiziko
berriz beldurrik gabe
lasai nauk hasiko
ta hik ni bezala haut
bihar nik utziko.

Ezponda:- Nire gisa lunetak
ekarri garbiak
beti lagunak izan
bai gira gu biak
beste irrik egin
ez dezan herriak
utziko haut egiten
aldi huntan erdiak.

Xalbador. Hasiko nauk partidan
borondate onez
aste batez haragi
onenetik janez
ez hadila beldurtu
nik gaur hau erranez
irabaziko daia
bortz kintze emanez.

Ezponda: Gizon hau indartsua
bai zerauku hasi
bere ahalmenak lehen
ez ditu erakutsi
lehen galdu du eta
ez da joan ihesi
txoriak ezin bait du
zezenik irentsi.

Landart: Bertsulariek orain gartzelako ariketen bi egiteko izanen dituzte. Lehenik azken puntua eman eta bertso bat osatu beharko dute zortziko nagusian. Ondoren gai bati buruz hiruna bertso nahi duten neurri eta doinuan.

1. Martxa honetan zail izanen da hemen arnasa hartzea.
2. GAIA: Semeak erran dautzu: "Aita nik ez dut zu bezalakoa izan nahi".

MENDIBURU

1. Batzuek erabaki da
han kartzeletan sartzea
to neri berriz debakatu daut
istant bat ere jartzea
jende guzietan beraz errez da
gaur Baigorri ohartzea
*martxa honetan zail izanen da
hemen arnasa hartzea.*
2. Semea orai nmintzatu zira
funts gabe itsu-itsuan
zuk nik bezala ez ari nahi
jende maitentzat bertsuan
uste duzia ez gauden ongi
hemengo paradisuan
ez da urguilu harrokeririk
txapelketaren pisuan

jarraiki zait ez aita bezala
euskararen zerbitzuan.

Ez nik bezala jokatu nahi
min egin duzu ondikotz
gaur zure aita abertzale ta
euskaldun fina delakotz
atsegin nuke zu ni bezala
bermatzea indar oroz
euskara eta Euskadigatik
beti bihotz eta gogoz
indar guztiez jokatu zaiten
herri hunen amodioz.

Zure mintzoa nitan sartu da
haur xumen mintzoen arau
to zu bezala gaur mintzo denik
Baigorri ez ditaizke lau
erabakia herriagatik
ez da hartzen hola briu-brau
baina barnatu pentsamenduak
ahalaz egun eta gau
ta nik bezala zerbitza zazu
seme maitea herri hau.

ARozENA

1. Euskal Herrian aurka dabilta
nola bat hala bertzea
behin betirako oinperatu nahi
nahi lukete gu lehertzea
baina oraindik zutikan dago
gure aitaren etxea
*martxa honetan zail izanen
da hemen amasa hartzea.*
2. Seme maitea zure hitzakin
lotu didazu katea
baina oraindik gazte zerata
zerbait nahi dut esatea
aita nola dan ikasteakin
lotsatu eiten al zea?
egia da bai hemen bakoitzak
egin behar du berea
nik ahal dudana erakutsiko-izut
gero hor dezu atea.

Itxura danez hartu nahirikan
zabiltza bide berriak
itxura danez nere pausotan
gainezka daude harriak
kendu dituzu nere aurpegik
lehendikan zitu irriak
aita batentzat horiek dira
hitz gor ikaragarriak
semeangatik ez zait inportik

maitatzen banau herriak.

Nere ustetan zu izan zera
sukalde onen hezia
zuregatikan nahiko zaila dut
seme nik nire bizia
esan litake gure etxean
falta dala justizia
baina ez pentsa neretzat ez da
hainbesteko desgrazia
arkaitzen baten erein ote dut
zure nortasun hazia?

ARZALLUS

1. Bizi bizirik dagon gaiari
nahi nuke zuzen heltzea
alderdi batzuen joko hori
zaila bait da ulertzea
Korrika ere saiatu dira
nolabait ere lehertzea
*martxa honetan zail izanen da
hemen arnasa hartzea.*
2. Nere semea landu nahi nuen
nik zaletasun orotan
bertsotan erakusten ere ni
aritua naiz frangotan
baina ikusten denez lan hori
ez bait du hartu gogotan
haundituztean ez du egin nahi
aitak bezala bertsotan
nere burua nahastua dit
gaurko esaldi honetan.

Hori entzun da nere barrua
jarri didazu erreta
baina aitatzok gaur dionari
jarri zaiozu arreta
oraindik oso umea zera
egin anitz gogoeta
hori entzun da sartu didazu
bizi guztirako kezka
bertsolaria ez bada ere
izan dedila poeta.

Guk nahi duguna egitea ere
askotan bait da gauz gaitza
gure semeak bide onetik
eraman nahian gabiltza
baina estua izan da egun
ezarri didan baldintza
nere semea hau da aitatzok
zuretzat dun azken hitza
zuk nahi duzuna izan zaitea
zurea bait da bizitza.

ALKAT

1. Gauza zaila da euskal munduan
gogotik lanez hartzea
gauza zaila're eskatu eta
zerbait laguntza aisea
baina hala're beharrezkoa
Seaskaren salbatzea
*martxa honetan zail izanen da
hemen arnasa hartzea.*

2. Orai artean sendimendua
bamean zaukan gordea
hamabi urte egin dituzu
haunditzen ari ordea
ez dakit nerea zirelakotz
maitagarri ta noblea
ez zaitez ni bezala zu izan
baina askotez hobea.

Etxe barnean haur batek badu
kemen eta alaitasun
bereak beti agertu nahi
ta bertzenak ezin entzun
etorkizunak zure gogoan
izan dezala ohiartzun
denboran aitak hasi sail hura
gero bukatu dezazun.

Xede onekin zira semea
zorionez dut ikusi
baina oraindik gaztea zira
ez gaiten otoi ilusi
badakit zerbait eginen duzu
dena salto eta jauzi
erran bezate "aita ona zen
baina semea nagusi".

Joxe Fermin ARGIÑARENA

1. Euskal kulturak behar lukena
euskeratikan ase
baina erdera to frantzesaren
mende askoren antzea
eta aurrera egin behar da
ez al goazte atzea?
martxa honetan zail izanen da
hemen arnasa hartzea.
2. Aizu semetxo bi, hiru bertso
beharko dizkizut kanta
zuregandik hori entzun da
hartu det pena galanta

"Zu bezelako ez det izan nahi"
entzun besterikan falta
baina oraindik garaiz gabiltza
zertan emango det lata
gerora konturatuko zera
oraindik gazte zerata.

Zure aitaren bihotz erdian
horren hizketa zorrotzik
arantzik gabe ere ez bait da
inon sortutzen larrosik
baina Euskadin morroi behar da
nagusitu da arrotzik
nik, euskalduna naizela diot
eta hortan ez naiz lotsik
ni bezelaxe euskaldun izan
baldin badezu bihotzik.

Aita euskeraz beti ohi zaizu
mintza ta zer da seinale
hemen gaur zuri itxura egin
aitarentzat ez da bale
aitaren alde onak begira
eta izan euskaltzale
erderarekin ezin bait leike
inoiz izan abertzale
gutxieneko ni bezala zu
izan herrian maitale.

XALBADOR

1. Duela zenbait egun hainbertze
aipatzen zuten bakea
ta beregatik sortu zaizkigu
plazer eta oinazea
bat pakearen alde zelarik
aurka plantatzen bertzea
*martxa honetan zail izanen da
hemen arnasa hartzea.*
2. Semea erran dautazun horrek
sortu deraut dolorea
badakit untsa ni ez nizala
arras aita dotorea
hala're nahiko nuen zu izan
ni bezala to ordea
bertze nolazpait izan nahi duzu
ta hartu bertze bidea
agian izanen zira seme
zu aita baino hobea.

Ez baduzu ni bezala izan
nahi're ez zaitut etsaia
ta beti zure-aita zintzoa
izatea da ene nahia
bertze nolazpait izan nahi duzu
beraz hortan zaitez saia
nik gauza bat dut nitan gustuko
ez dutana ez naiz alma
agian zu ni baino alaiagoa

dukezu bizaia.

Hara manatzen dautzut agian
izan zaiten alegera
bizian izanen da zuretzat
ere aunitz gora behera
itzuli eta ni iduria
izan nahiz heldu bazera
poz haundirekin itzuliko naiz
ni beti zure aldera
gauza batetan ni iduri izan
maitatu beti euskera.

Joxe Migel ARGiÑARENA

1. Askotan ahaztutzen zaigu guri
geren alorra zaintzea
nola ukatu genezake
apur hori eskeintzea
Euskal Herrian ia milagro
dirudi alkartzea
*martxa honetan zail izanen da
hemen arnasa hartzea.*

i

2. Aita-semeak bart gauean gu
hor jardunak gera teman
nere gisara ez dula izan nahi
aditzera ere dit eman
nere antzeko izatea're
ez diat opa sekulan
baina saiatu behar dek lanean
edo eta eskolan
mundu honeri erantzun on bat
emanaz dena eraman.

Hamabost urte beteak dauzkak
eta ari haiz hazitzen
orain artean mutil koxkor bat
ia besterik ez hintzen
aura galdua, aitan ondoan
gustora haiz hi bizitzen
bizi gogoak ere ez zaizkik
horrelaz gain gutxitzen
saiatu behar diagu behintzat
degun pixkari eutsitzen.

Semea ez haut nik bialduko
ezertara ta inora
baizik kontsejuk emango izkiat
noiz, nola eta nora
noranahi joanik lanai etorri
hindeke nere ondora
aitaren izate hori beti
ahal badek berriz mejora
baina aintzat hartu hi haiz aitaren
esperantzaren lora.

EZPONDA

1. Kinka txarrean gaudelarikan
bizitza bait da luzea
hauteskundetan hautatu arren
guk bata edo bertzea
denek desio haxe bait dute
Euskadiren lurpetzea
*martxa honetan zail izanen da
hemen arnasa hartzea.*

2. Seme maitea arrazoi hori
senditzen diat ba nik'e
aita triste izana nauk ta
hi egina haut alaike
hobeagoa itxaropenduz
nahiz ez den izain merke
gaztea haiz baino orain beretik
gogoa landu behar huke
hobeagoa izan hadi ta
hori eder bai litake.

Itxaropentsu bizi nindukan
urte batetik bertzera
zer arrazoiez hi gaur etorri
haizen aitaren aurrera
ikusten baituk aitag denbora
galdu duela sobera
etxea eta herri hau ere
hik nahi dituk atera
gutxienetik aitag egina
etzakala utz galtzera.

Lanerako gu sortuak gaituk
eta ari gaituk betitik
hik ere bertze zerbait eiteko
a(r)i beharko duk gogotik
aita adinez aurrera zoak
laster joanen duk hemendik
halarik ere segira utziz
aita joanen duk kontentik
nere zaharreri han errateko
etxea dagola zutik.

Landart Gaurkoan txapeldun Ernest Alkat izan da. Imanol Lazkano, Euskal Herriko Bertsolari Elkarteko lehendakariak emanen dizkio txapela, kopa eta saria. Bigarren daukagu Manolo Arozena, saria eta kopa Emile Larre Euskaltzainak emanen dizkio. Bertso hoberena Txomin Ezpondari dagokio eta Mariano Izetak eskeiniko dio kopa. Saioari amaiera emaitako bertsolari guztiek azken agurra eskeiniko digute. Bertzerik gabe agur eta datorren urterarte.

Mendiburu: Uste dut epaile txar asko zen
gaur egun epai mahaian
eta entzule airutz daudela
hortxe nigarra begian
baina bi seme Baigorrik ditu
gaur egun Euskaltzaindian
eta pozturik eskertzen zauztet
denak nik heien herrian.

Arozena: Nahiz entzulea izan
bertsoen egarri
nobedade haundirik
ez degu ekarri
Hegoa ta Ifarra
eskuak alkarri
denei eskerrik asko
ta agur Baigorri.

Arzallus: Ez gera etorri oso lasai ta
espiritutikan lori
pasatu degun trantze estua
ez diot opa inori
bainan sufritu behar genula
jakinik gera etorri
agur Nafarroa guztiari
ta urrenarte Baigorri.

J.F. Argiñarena: Lehendabizi zoriontzen
det nik lagun Alkat
ta beste seirentzako
nik besarkada bat
gutxiago merezi ez
eskerrak zuentzat
berriz ere biltzea
neri gustako zat.

Xalbador Zuen gustoa egitea guk
ginuke bai beti plazer
baina beti ez dezakegu guk
egin nahi hainbat lan eder
bertzaldi batez ere agian
eginen degu zedozer
entzutera jin bertsozaleak
bihotz guziaz milesker.

JM Argiñarena: Hainbeste une estu
bertsoen bizitzan
nere kableak erdi
trabatun zebiltzan
hontaz aurrera ez dakit
gehio re zer esan
mila esker zueri
merezi dan gisan
eta urrengorarte
denok ongi izan.

Ezponda: Zorionak hartu ditzala
Alkatek, nere lagunak
beti bortitzak izaten dira
finaletako egunak
jaun-andereak zuen txaloak
pozez bait ditut entzunak

ta hoiek guri eman digute
behar den berotasunak
egia erran zuek zirezte
egiazko txapeldunak.

Alkat:

Unatzen hasi gira
bertsuz eta lanez
ahal duen guzia
bakotxak emanez
azken urte hauetan
sendikor izanez
orraituz lehen nitaz
batzuek erranez
zueri galdatzen dut
nere den ala ez.

Sinistea neke da
ezin dut konpreni
xapela Alkatentzat
ote zen komeni?
hala're ezin uka
kontentik nago ni
lehen andreari ta
hau nori eskeini?
bertsutan hasia den
semetxo Pattini.

Prediku laburrenak
bait dira gozoak
zuek'e aspertuak
belarri gogoak
eskerrak hartzen ditu
hemengo giroak
aurrerapena dauka
gure Nafarroak
bertsularitzarentzat
jo zuen txaloak.